

Bestelako Iragarpen Ofizialak Otros Anuncios Oficiales

INDUSTRIA ETA MERKATARITZA SAILA

IRAGARPENA, Ezkio-Itxasoko A.B.T.ren 13,2 KV.ko elektrabideen Irteeren Proiektua jendaurren jartzen duena.

6756

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y COMERCIO

ANUNCIO por el que se somete a información pública el Proyecto de Salidas de líneas a 13,2 KV. de la E.T.D. de Ezkio-Itxaso.

6756

Euskadi Osorako Erabakiak Disposiciones Generales del País Vasco

LEHENDAKARITZA

2787

211/1989 DEKRETUA, irailaren 26koa, Europa'93 Planaren Idazkaritza Nagusia sortarazten duena.

Sailak sortze eta birregituratzeari eta Jaurlaritzaren egitekoak eta ihardute-eremuak zehazteari buruzko martxoaren 11ko 27/1987 Dekretuan ezartzen denaren arabera eta Jaurlaritzaren Idazkaritza, Lehendakariaren laguntzarako organu gisa eta honen artezko agintepean, sortzen deneko martxoaren 11ko 28/1987 Dekretuan agintzen denaren arabera, Lehendakariaren Idazkaritzaren egitura eta egitekoak zehazten zirenez eta urriaren 6ko 306/1987 Dekretuz onartzen zirenez.

Lehendakariaren Idazkaritzako organu ezberdinei izendatutako egitekoak erabiltzeak, honako helburu hauek bete ahal izateko Idazkaritza Nagusi berezi bat sortaraztea eskatzen du, hau da, «Euskadi 1983.eko Europan» izeneko Ezohizko Plana bultzatzea, koordinatzea, zaintzea eta berari buruzko informazioa ematea, harremanak izatea eta publikora ateratzea hain zuzen; bestalde, Eusko Jaurlaritzak eta Hiru Foru Aldundiek 1989.eko maiatzaren 29an izenpetutako Funtsezko Akordioaz sendespena eman zitzaion horren garapenari. Ondorioz, beharrezkoa da, urriaren 6ko 306/1987 Dekretua aldatzea, Europa'93 Planeko Idazkaritza Nagusia Jaurlaritzaren Idazkaritzako Egitura Organikoan sartu ahal izateko.

Horiek horrela, Lehendakariaren proposamenez eta Jaurlaritzak 1989.eko irailaren 26an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. *atala.* - Europa'93 Planeko Idazkaritza Nagusia sortarazten da, Jaurlaritzaren Idazkaritzako goreneneko mailako organu gisa. Idazkaritzako titularrak, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean ezartzen diren ondorioetarako, Sailburuorde maila izango du.

2. *atala.* - Jaurlaritzaren Idazkaritzaren egitura eta egitekoak zehazten direneko urriaren 6ko 306/1987 Dekretuko 1.1 e) atala, honako era honetan idatzita geldituko da:

«Europa'93 Planaren Idazkaritza Nagusia.»

3. *atala.* - Jaurlaritzaren Idazkaritzaren egitura eta egitekoak zehazten direneko urriaren 6ko 306/1987

PRESIDENCIA

2787

DECRETO 211/1989, de 26 de septiembre, de creación de la Secretaría General del Plan Europa'93.

Mediante Decreto 306/1987, de 6 de octubre, se aprueba la estructura y funciones de la Secretaría de la Presidencia del Gobierno, determinadas conforme a lo establecido en el Decreto 27/1987, de 11 de marzo, sobre creación, reestructuración de Departamentos y determinación de funciones y áreas de actuación del Gobierno, y a lo establecido en el Decreto 28/1987, de 11 de marzo, por el que se crea la Secretaría de la Presidencia del Gobierno como órgano de apoyo al Lehendakari y bajo su dependencia directa.

El ejercicio de las funciones asignadas a los distintos órganos de la Secretaría de la Presidencia en el último Decreto aconseja la creación de una Secretaría General específica para asumir el impulso, la coordinación, el seguimiento, así como la información, comunicación y proyección pública del Plan Extraordinario «Euskadi en la Europa de 1993» cuyo desarrollo fue refrendado mediante el Acuerdo Marco suscrito entre el Gobierno Vasco y las tres Diputaciones Forales con fecha 29 de mayo de 1989. En consecuencia resulta necesaria la correspondiente modificación del Decreto 306/1987, de 6 de Octubre, al efecto de incorporar la Secretaría General del Plan Europa'93 en la Estructura Orgánica de la Secretaría de la Presidencia del Gobierno.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia, previa deliberación y aprobación del Gobierno en su sesión del 26 de septiembre de 1989,

DISPONGO:

Artículo 1. - Se crea la Secretaría General del Plan Europa'93 como órgano superior de la Secretaría de la Presidencia del Gobierno. El titular de la Secretaría tendrá a los efectos de lo dispuesto en la Ley 7/1981 de 30 de junio, de Gobierno, el rango de Viceconsejero.

Artículo 2. - El artículo 1.1 e) del Decreto 306/1987, de 6 de Octubre, por el que se determinan la estructura y funciones de la Secretaría de la Presidencia del Gobierno queda redactado de la siguiente forma:

«La Secretaría General del Plan Europa'93.»

Artículo 3. - El artículo 7 del Decreto 306/1987, de 6 de Octubre, por el que se determinan la estructura

Dekretuko 7 atala, honako era honetan idatzita geldituko da:

1. Artez eta hierarkikoki Jaurlaritzaren Idazkaritzaren pean egongo den Europa'93 Planaren Idazkaritza Nagusiak, honako egiteko hauek izango ditu, hots, «Euskadi, 93.eko Europan» izeneko Ezohizko Planean sartzen diren proiektuak bultzatzea, koordinatzea eta zaintzea alegia. Halaber, honako ihardun hauek ere bere baitan izango ditu Idazkaritza honek: Planak eskatzen dituen informazio, komunikazio eta ezagutarazte-lan bereziak hain zuzen.

2. Beraz, honako hauek dagozko Europa'93 Planeko Idazkaritza Nagusiari:

a) Planak hartzen dituen alde ezberdinak koordinatzea eta horien artean Plana bultzatzea.

b) Planak dituen proiektu ezberdinak, dituzten alde guztiei dagozkienetan, burutu daitezzen bultzatzea eta zaintzea.

c) Planak dituen alde ezberdinak aztertzea eta instituzio eta erakunde berriek bertan parte hartu dezaten ahaleginak egitea.

d) Europa'93 Planak hartzen dituen informazio, gizarte-kontzientziaketa eta publikorazte-programa gertatzen parte hartzea.

Ezohizko Plan hori gauzatzen parte hartu behar duten Sail eta Institutuzio ezberdinek dituzten ahalmenen kaltetan gabe garatuko ditu bere egitekoak Idazkaritza honek. Bestalde, Sail eta Institutuzio horiei dagozkie Planak hartzen dituen ihardunen zuzendaritza, burutze eta arta eramatea, bakoitzari dagozkion eskuduntzen barruan.

3. Europa 93'Planak bere baitan hartzen dituen proiektuak gauzatu eta horien garapenak ekar ditzan ihardunak burutu ondoren, Idazkaritza Nagusi hau desager dadila deklaratu da Dekretu bidez.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ogasun eta Finantza Sailari esku ematen zaio Dekretu honetan agintzen dena betetzeko beharrezko izan daitezkeen kredituak bideratzeko egin behar diren aurrekontu-aldaketak gauzatu ditzan.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1989.eko irailak 26.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

y funciones de la Secretaria de la Presidencia del Gobierno queda redactado en los siguientes términos:

1. La Secretaria General del Plan Europa'93, bajo la dependencia directa y jerárquica del Secretario de la Presidencia del Gobierno, tiene como misión impulsar, coordinar y realizar el seguimiento de los proyectos incluidos dentro del Plan Extraordinario «Euskadi en la Europa del 93». Asimismo serán objeto de esta Secretaría, las actividades específicamente relacionadas con la información, comunicación y proyección pública que este Plan exige.

2. Corresponde por tanto a la Secretaria General del Plan Europa 93 las siguientes funciones:

a) Coordinación general e impulso del Plan entre cada uno de los agentes afectados.

b) Impulso y seguimiento de la ejecución de los diferentes proyectos del Plan en todas sus vertientes.

c) Análisis de los diferentes aspectos del contenido del Plan e impulsar la incorporación al mismo de nuevas instituciones y entidades.

d) Participar en la ejecución del programa de información, concienciación social y proyección pública recogida en el Plan Europa 93.

La Secretaria desarrollará las funciones mencionadas sin menoscabo de la capacidad competencial atribuida a los diferentes Departamentos e Instituciones que intervienen en la ejecución del mencionado Plan Extraordinario, a los que corresponden la dirección, ejecución y control de las acciones que se contienen en el Plan, en el ámbito de sus respectivas competencias.

3. Concluidos los proyectos a ejecutar contemplados en el Plan Europa 93 y las actividades derivadas del desarrollo del mismo, se declarará la extinción de esta Secretaria General mediante Decreto.

DISPOSICION FINAL PRIMERA

Se autoriza al Departamento de Hacienda y Finanzas a realizar las modificaciones presupuestarias pertinentes en orden a la habilitación de los créditos necesarios para el cumplimiento de lo previsto en el presente Decreto.

DISPOSICION FINAL SEGUNDA

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de septiembre de 1989.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.